

AGERIKO EKITALDIA

Arratsalde on guztioi.

Ongi etorriak Nafarroa Oinez 09 eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatutako ekitaldi honetara.

Dakizuenez, hiru dira aurtengo Nafarroa Oinez helburuak. Batetik, ikastetxe berria eraiki ahal izateko finantzazio bide izatea, bestetik euskara, gure hizkuntza sustatzea eta azkenik, hizkuntza gutxitu eta gutxiagotuen aldeko aldarrikapen gunea izatea.

Azken bi hauetan, hau da, mintzairarekin lotuak daudenak, Euskaltzaindiak zeresan handia du, bera baita gure hizkuntzaz arduratzen den Euskal Herriko erakunde gorena, gure hizkuntzaren enbor zaharrari bizi berria emateko, bere garapena zaintzeko eta zuzentzeko sortua; hizkuntzaren beraren ikerketaren bidean sor daitezkeen arazoei adorez eta maitasunez ekiteko.

Ohore bat izan da guretzat gaur Euskaltzaindiaren Euskararen Historia Soziala proiektuaren jarraipen batzordea, sustapen batzordea eta Zuzendaritza gure artean izatea. Eskerrik beroenak eta Zorionak 90 urte hauetan egindako lanarengatik.

AURKEZPENA

Ekitaldi honi euskaltzain urgazlea den José Luis Erdozia etxarriarrak emango dio hasiera, Sakanako betiko hitzak erabiltzeko gomendioak eta argibideak emanaz.

Jarraian Pello Urzelai, Andra Mari ikastolako lehendakariordeak, Jose Mari Satrustegi euskaltzain zenaren omenez bi hitz egingo ditu.

Tarte honetan musikak izango du bere lekua, gure ikasle ohien parte hartzearekin.

Ondoren, aurten zendu den Santiago Ezkerra Beltza "*Lizarrusti*" euskaltzain urgazlearen bizitza eta lanak jasotzen duen liburua aurkeztuko du Andrés Iñigok bere egileak.

Bukatzeko, Andrés Urrutia euskaltzainburuak Euskaltzaindia eta Nafarroa gaiak hitz egingo ditu.

Eta bukatzeko, ekitaldia musikaz lagunduta amaituko dugu.

Eskerrikasko

Etxarri Aranatzan, 2009ko irailaren 25ean
Muxi Mariñelarena, Andra Mari ikastolako zuzendaria